



Ahokotasuna: aisialdian eta lan munduan euskararen erabilera bultzatzeko ekarpenak hezkontzatik

AURKEZPENA ETA SAIO PRAKTIKOA Ines Garcia-Azkoaga eta Josune Zabala

San Telmo Museoa, Donostia
2016ko urtarrilaren 29a
10:00-11:30

BERBEKIN BERGARAN BERBAZKO KOMUNIKAZIOA INDARTZEKO PROGRAMA

ZER DA BERBEKIN?

Edozein ikasgaitako ikasgela edo espaziotan gertatzen diren elkarrekintzen azterketa eta formazio sorta bat da. Bereziki fokua jartzen da elkarrekintza horietako ahozko hizkuntzaren erabileran: i(ra)kaskuntza prozesu ezberdinetan eraikitzen diren elkarrekintzak aztertu eta ahozko erabilera eta garapenean laguntzen duten esku hartze eraginkorrak bilatzen ari gara.

Begirada jarri da eskolako edozein irakasle edo hezitzailearengan; bere esku hartzeak ikasleen hizkuntza erabilera aniztasun eta nolakotasunean eragiten duena aztertzen ari gara eta hobekuntzarako aukeretan sakontzen. Zertarako? Ikasgelako euskararen erabileran eragiteko ditugun gako berriak zein diren argitzeko.

Behaketa bidezko metodologia baliatuz, saio ezberdinak grabatu dira bideoz eta aztertu. Irakasleekin egin dira euren ekintzaren gaineko gogoetak (bakarkako konfrontazioak eta talde konfrontazioak). Horrez gain, ikerketatik jasotako informazioa zabaldu da formazio saio ezberdinen bitartez.



BEGIRADA

AISIALDIRA LAN MUNDURA

BEGIRADA AISIALDIRA ETA LAN MUNDURA

Komunikazioa presente dago eskolako edozein testuingurutan, eta hizkuntza ikasi eta erabiltzeko behar eta aukerak testuinguru bakoitzean aurkitzen dira. Berdin aisialdi antolatuan edo lantegietan.

Ikasgelaren eremuan bezala aipatu ditugun eremuetan, hezitzailea edo lankidea (zuzendaria, teknikaria, aholkularia...) da egoera bakoitzean komunikazio-jarduerak eraikitzen dituen.

Egoera edo diziplina bakoitzak du komunikatzeko molde bat, bere kode berezitua. Hezitzaile edo lankide horrek prozesu ezberdinetan aukerak eman ditzake ahozko komunikazioan parte hartu eta hizkuntzan sakontzeko edo gerta liteke ezer ez egitea. Askotan, hezitzailearen edo lankide jakin horren esku dago bere jarduera komunikatiboki esanguratsu eta eraginkorra izatea ala ez. Berdin gainerako partaideena.



Zer egiten da aisialdian edo lan munduan gai honi dagokionean?

Hezitzaile edo lankide jakin horrek hartzen duen rolak, erabiltzen den hizkuntzak, eraikitzen den formaltasun mailak eta beste hamaika faktore aztertzeak laguntzen du jakiten hezitzailearen edo lankide jakin horren elkarrekintzarako moduak zein diren, zein harreman sortzen diren berdin eta ezberdinen artean, baita hizkuntza erabileraren zer nolakoa ere. Behaketak laguntzen du bilatzen zein diren partaideen hizkuntza jabekuntza eta erabilera sustatzen duten jarduera eraginkorrak.

Behaketarako sortzen dira galderak:

Nork hitz egiten du gehien?

Nork kontrolatzen ditu parte hartzeak?

Zer egiten da parte hartze arauari dagokionean?

Nola kontrolatzen dira parte hartze horiek?

Partaideek euren artean hitz egin dezakete?

Zein egoera eta baldintzetan?

Zein hizkuntzetan komunikatzen dira partaideen artean?

... azken batean, nola kudeatzen da hizkuntza bereziki lagun dezan ahozko erabilera kalitatezkoa eta askotarikoa izan dadin?

Galdera horiei ikasgela eremuan erantzuteko baliatu ditugun tresnak aurkeztuko ditugu, eta aipatutako eremu berrietan nola aplikatu litezkeen aztertu.